

Langabezian dauden gazteentzako enplegua sustatzea

Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2017 FORU DEKRETUA, apirilaren 25ekoa

KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

250 pertsonatik beherako plantilla duten Bizkaiko enpresek eska ditzakete.

Diru-laguntzak **2016ko irailaren 16tik 2017ko irailaren 15era** formalizatzen diren kontratuentzat izango dira.

Kontratatzeko baldintzak

1. Kontratuek lanaldi osokoak izan behar dute, edo lanaldi partzialekoak, betiere lanaldiak ezarritako ohiko lanaldiaren % 50 hartzen badu gutxienez, kontratua hasten den egunetik eta indarrean dagoen aldi osoan.
2. Kontratua hasten den egunean **30 urte edo gutxiago dituzten gazteek** bete beharko dituzte diruz lagundutako kontratuak.
3. Kontratuek **12 hilabeteko iraupena izan behar dute gutxienez**, eta iraupen jakin batekoak edo **mugagabeak** izan daitezke. 102/2016 Foru Dekretuko diru-laguntzak jaso dituzten gazteek baino ez dute jasoko prestakuntza eta ikaskuntza.
4. Gazteak beren **prestakuntza akademiko profesionalarekin bat datozen lanpostuetan kontratatuko dira**.
5. Titulu honetan ezarritako kontratuen bitartez kontratatzen diren langileek egiaztatu beharko dute justu kontratua hasi aurretik **langabezian** egon direla hilabetez.
6. Eskaera aurkeztu baino lehen formalizatu beharko da kontratua, bai eta kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean alta eman ere.

Laguntzaren zenbatekoa

12 hilabeteko iraupen zehatza duten **kontratuen** kasuan, **soldata gordinaren % 25 lagunduko da diruz, urtebeteko epean.** — Kontratu **mugagabeen** kasuan, **% 35.** — Orientazio-ibilbidea amaitu duten gazte langabeentzako **prestakuntza eta ikaskuntzarako** kontratuen kasuan, **% 35.**

Epeak

Justifikazioa telematikoki aurkeztuko da, gehienez ere bi hilabeteko epean, diruz lagundutako kontratuak amaitzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epea **2017ko maiatzaren 2an** hasiko da, 9:00etan, eta **2017ko irailaren 15ean** amaituko da, 13:30ean.

Eskaeren aurkezpena

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituztenek dagokion eskaera bete eta eskatzen den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dute, nahitaez Internet bidez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean.